Osakidetza

OSAKIDETZA - 2021EKO ALDI BATERAKO KONTRATAZIOKO ZERRENDAK

ELEKTRONIKOKI IZENA EMATEKO JARRAIBIDEAK

Sartu Osakidetzaren webgunean zure nabigatzailearen bidez: https://www.osakidetza.euskadi.eus

Aukeratu "EU" hizkuntza-bertsioa, euskarazko orrialdera sartu nahi baduzu.



"Enplegu publikoa" sakatu:

"Aldi baterako kontratazioa" atalean "Aldi baterako kontratazioko zerrendak 2021" atala aurkituko duzu

Osakidetza

Profesionalentzat

Ataria / Profesionalentzat

Enplegua Osakidetzan | Zerbitzu elektronikoak | Argitalpenak

Aldi baterako kontratazioa

Aldi baterako kontratazioa langileak hautatzeko eta hornitzeko prozesu bat da, eta Osakidetzaren aldi baterako kontratazio-beharrei erantzuteko profesionalak hartzea du helburu.

Bai zerrendak egiteko, bai aldi baterako izendapenak kudeatzeko, berdintasun-, merezimendu-, gaitasun-, eraginkortasun- eta arintasun-printzipioak bete behar dira, bai eta objektibotasuna eta gardentasuna ere.

Aldi baterako kontratazio-zerrendak

Izena emateko epea: 2021eko irailaren 23tik urriaren 25era

Aplikazioan sartzea

Osakidetza Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluaren 2021eko uztailaren 21eko Erabakiaren bidez, Osakidetzako aldi baterako kontratazio-zerrendak egin eta kudeatzea arautzen da (EHAA, 158. zk., 2021eko abuztuaren 10ekoa).

Mediante RESOLUCIÓN xxx/2021, de 22 de septiembre, de la Directora General de Osakidetza-servicio vasco de salud, se constituyen las listas de contratación temporal 2021, procediendo a abrir el plazo de inscripción.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren irailaren 22ko xxx/2021 ebazpenaren bidez, 2021eko aldi baterako kontratazio-zerrendak eratu dira, eta izena emateko epea ireki da.

HARREMANETARAKO:

2021lp-lc@osakidetza.eus

DOKUMENTU INTERESGARRIAK (irakurri arretaz)

- Ohiko galderak. 2021eko zerrendak.
- Izena emateko eskabidea egiteko jarraibideak.
- Ohiko galderak hemtartasun sarbidea. identifikazio elektronikoa.
- 2016-17ko EPEko deialdian sartu ez ziren kategoriak / lanpostu funtzionalak edo 2016/17ko EPEko deialdian kautelaz etenda daudenak. Informazioa.

Aldi baterako kontratazio-zerrendak

Kontratazio-zerrendak 2018 | Kontratazio-zerrendak 2014 | Kontratazio-zerrendak 2011 | Kontratazio-zerrendak 2008

Berriak | Jardunaldi eta bilzarrak | Ikerketa-proiektuak | Made in Osakidetza

Osakidetza
- Ezagutu Osakidetza
- Pazientearen eta erabiltzailearen arreta zerbitzua
- Gardentasuna eta Gobernu ona
- Datuen babesa

Atalak
- Osasun Eskola
- Profesionalak
- Enpresentzako
- Osasun-prestakuntza Espezializatua

Sarbide zuzenak
- Aurretiko zita
- Zure zentroa aurki ezazu
- Osasun zorroa
- Online zerbitzuak
- Intranet korporatiboa

Informazioa orokorra
- Harremanak
- Web-mapa
- Irisgarritasuna
- Egoitza elektronikoa
- Lege informazioa

Osakidetza

Eskaera egiteko, sakatu “Aplikaziora sartzea”

2021eko aldi baterako kontratazioko zerrenden aplikaziora sartzen zarenean, **hizkuntza** aukeratu ondoren, sakatu “**Sarbidea**” goian, eskuinean.



Identifikazioa elektronikoa izango da:

- **Osakidetzako langile aktiboa bazara**, sartu zure NANa/AIZa eta Osakidetzaren sistema informatikoetara sartzeko erabiltzen duzun pasahitza.



- **Osakidetzako langile aktiboa ez bazara**, edo Osakidetzako langilea izanik ez baduzu zure sarbide-gakoa gogoratzen, erabili elektronikoki identifikatzeko erabilgarri dagoen beste edozein baliabide.

  Zalantzarik baduzu, kontsulta ezazu "Herritarren sarbidearen inguruko ohiko galderak" Aldi baterako kontratazioaren webgunean.



Identifikatu ondoren, sakatu "**Hautagaia**" eta Eremu pribatura sartuko zara.



“Prozesu eta deialdi hauetan eman dezakezu izena” atalean, **2021KZ** aukeratu behar duzu, eta “deialdia” atalean, hautatu zer **kategoriatan** eman nahi duzun izena, eta sakatu **Bilatu**.

GARRANTZITSUA: ez aukeratu LLII (Lekualdatze-lehiaketa irekia eta iraunkorra)



Bi eremuak aukeratu ondoren, sakatu eskaera egin nahi duzun deialdia.



Osakidetza

Sakatu "Datu pertsonalak / Jakinarazpenetarako datuak / Deialdiari buruzko datuak", bete formularioak eskatzen dizun informazio guztia, eta gorde datuak.



Inskripzioak bi erlaitz ditu. **Eskaera behar bezala egiteko, biak bete eta "Gorde" sakatu behar duzu.**

1. erlaitza: **DATU PERTSONALAK**

Derrigorrezko eremu guztiak bete behar dituzu. (*)



2. erlaitza: **ESKABIDEAREN DATUAK**

Atal hau betetzean zalantzarik izanez gero, abisuetan aurkituko duzun "**Ohiko galderak. 2021eko zerrendak**" dokumentua kontsulta dezakezu.

Erlaitz honetan, honako hauek bete behar dituzu:

- **Lanaldia.**3 aukeretako bat hautatu behar duzu.

- **Izendapen laburren zerrenda**



Zerbitzu-erakunde batean edo bitan sartzeko eska dezakezu, eta Erakunde bakoitzaren barruan, guztiz hautatu nahi ez baduzu, agertzen diren aukerak hauta ditzakezu.

- **Izendapen luzeen zerrenda**

Aukera hauek dituzu:

a) **zerbitzu-erakundeka aukeratu**; horretarako, nahi dituzunak hautatu behar dituzu banan-banan, eta > sakatuta, eskuinaldera pasatu.

b) lurralde-egoitza hautatu, lurralde-esparrua autonomia-erkidegoa duten zerbitzu-erakundeen kasuan.



c) Osasun-barrutia hautatu



Eskabidea gorde ahal izateko, **lauki hau markatu behar duzu:** *Aldierazten dut aldi baterako kontratazioko zerrendetan onartua izateko baldintzak irakurri eta onartu ditudala.*





Eskabidea inprimatzeko, sakatu markatutako ikonoa.



Izena eman ondoren, **“Baldintzak eta merituak aipatzea” atalean klik egin. <u>Automatikoki</u> kargatuko zaizu Curriculum Vitaearen aplikazioa**, NANa eta pasahitza sartu behar gabe.

GARRANTZITSUA: “**Baldintzak eta merituak aipatzea**” atala aktibatuko da “**Datu pertsonalak / Jakinarazpenetarako datuak / Deialdiari buruzko datuak**” ataleko bi erlaitzak bete ondoren.



BALDINTZAK ETA MERITUAK AIPATZEA



Curriculum Vitaearen aplikazioan egiaztatu behar duzu ea erregistratuta eta baliozkotuta dituzun izena eman duzun kategorian alegatu nahi dituzun betekizunak eta merezimenduak. Hori atal hauetan egiaztatu ahal duzu: **titulu akademikoa, euskara, laneko esperientzia, IT-**

txartelaren egiaztagiriak (horiek Administrari Laguntzailea eta Administraria kategorietan) eta **gidabaimena** (baldintza den kategorietan).

Erregistratuta ez badaude, mekanizatu egin beharko dituzu, eta egiaztagiriak erantsi. Era berean, gaizki erregistratuta eta baliozkotu gabe badituzu, alda ditzakezu eta egiaztagiriei erantsi.

Dokumentazioa erantsi ondoren, hori elektronikoki baliozkotuko da. Agiri horiek elektronikoki baliozkotu ezin badira, jatorrizko dokumentua edo dokumentu konpultsatua aurkezteko eskatuko dizu kontratazioa kudeatzen duen unitateak, eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren.

CURRICULUM VITAEAREN APLIKAZIOAN IKUSIKO DITUZUN ATALAK

Curriculum Vitae aplikaziora sartzean, kontratazio-zerrendetan izena eman ondoren, curriculumaren hiru atal baino ezin izango dituzu ikusi:

- **Laneko esperientzia.** – Atal honetan, Osakidetzan emandako zerbitzuak ikus daitezke (ofizioz erregistratzen dira), baita Administrazioaren beste erakunde batzuetan eman eta Osakidetzan akreditatu direnak ere.

  Osakidetzatik kanpoko esperientzia jasota ez baduzu, **egindako zerbitzuak erregistratu eta jatorrizko ziurtagiria erantsi beharko duzu.**

- **Prestakuntza. - Atal honetan, honako hauetara sartu ahalko zara:**

  - **Titulu akademikoa:** Amaitutako ikasketa akademikoak bakarrik erregistratu behar dira, titulu ofiziala dutenak, eta agiria erantsi behar duzu.

  Zure tituluak agertzen ez badira, **erregistratu eta titulua erantsi behar duzu**.

  Aukera dago NISAEtik datuak deskargatzeko. NISAE da euskal sektore publikoko administrazioen eta erakundeen artean eta gainerako administrazioekin datuak elektronikoki trukatzeko plataforma.

  Titulu akademikoaz gain, **Espediente akademikoa** eta **Espezialitatea** erregistratzeko aukera ematen du, Osasun Zientzietako tituluen kasuan.

  GARRANTZITSUA: Kontuan izan kategoria batzuetan, zehazki Administrari laguntzailea eta Zeladorea kategorietan, eskatutako titulazioetako bat baino gehiago izan ditzakezula. 2016-2017ko EPEko azterketa egin bazenuen, EPE horretako eskabide-epearen azken egunerako egiaztatuta zenuen titulazioa sartu behar duzu; bestela, azterketan lortu zenuen puntuazioa zero puntutan geratuko da.

  Oharra: kategoria bakoitzerako eskatzen diren titulazioak ikusteko, begiratu "**Ohiko galderak. 2021 zerrendak**" dokumentua; bertan, oharren atalean, azken EPEaren oinarri espezifikoak eta Osakidetzaren lanpostu funtzionalen Dekretua ikusi ahalko dituzu.

  - Euskara: Osakidetzak onartutako edo Osakidetzan egiaztatutako euskara-eskakizunak ikus daitezke atal honetan.

  Lortutako euskarazko hizkuntza-eskakizunak deskarga eta erregistra ditzakezu, aplikazioan sartu gabe badaude.

- **IT txartelen egiaztagiriak:**Gaur egun, Osakidetzak ESI European Software Institute-k egiaztatutako IT txartelen ziurtagirien datuak aldian-aldian kargatzen ditu CV aplikazioan. Ez dituzu erregistratu behar.

- **Bestelako merezimenduak. - Atal honetan gidabaimenak** mekanizatu eta egiaztagiria erantsi ahal izango duzu.

  NISAEtik deskargatutako erregistroei dagokienez, dagokion egiaztagiria erantsi behar zaio erregistroari.

  Kontuan hartu behar da erregistroa lehenengoz gordetzean mezu hau agertuko dela, erregistroa "**Zirriborro**" gisa gordeko dela jakin dezazun. "Zirriborroa" egoeran dauden erregistroak ez daude eskuragarri Osakidetzak berrikusteko; "**Bidalita**" egoerara aldatu behar dituzu Osakidetzak berrikus ditzan. **"Zirriborro" egoeran** dauden erregistroak **ez dira joko ez alegatu ez egiaztatutzat, 2021eko kontratazio-zerrendetako eskabideari dagokionez**. Horregatik, oso garrantzitsua da erregistroko informazioa sartzen amaitzen duzunean "**Bidali erregistroa**" sakatzea.

  GARRANTZITSUA: curriculum vitaean sartutako erregistro berriak kontuan hartuko dira baldin eta izena emateko epea amaitu aurretik "Bidalita" egoeran badaude.

ESKABIDEA EZEZTATZEA

Eskaera baliogabetzeko, zoaz Arlo Pribatura, izena ematen ari zaren edo eman duzun prozesu eta deialdien eremura, eta bertan behera utzi nahi duzun eskaerari dagokion kategorian sakatu.



Sakatu **Ezeztatu botoi gorria**.





ESKAERA ALDATZEA

Zerrendak eratzeko epean, nahi beste aldiz alda dezakezu zure eskabidea.

Izena eman ondoren, eskabidera sartu nahi baduzu, "**Prozesu eta deialdi hauetan eman dezakezu izena**" atalean sartu behar duzu.

GARRANTZITSUA: kontuan izan **izena emateko epea amaitu aurretik egindako azkena izango dela baliozko eskabidea.**